



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Euskal kirol federazioak,
berdintasunaren utopia**

*Judit Martínez Abajo,
Olatz Bastarrika, Mariate Vizcarra
eta Gema Lasarte*

231-237 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.29>



Euskal kirol federazioak, berdintasunaren utopia

Martínez-Abajo, J.; Bastarrica Varela, O.; Lasarte Leonet, G.; Vizcarra Morales, M.T.

Euskal Herriko Unibertsitatea

judit.martinez@ehu.eus

Laburpena

Ikerketa honek goi-mailako emakume kirolarietako federazioetan bizitako esperientziak aztertzen ditu. Helburua haien bizipenak ikertzea da, emakume horiek kirol erakundeen esparruan duten errealitatea ezagutzeko da. Lan hau kasu azterketa bat da, emakumeek federazioetan bizi izandako egoera asimetrikoak aztertzen dituena. Datuak biltzeko 19 elkarrizketa sakon eta 3 focus groups erabili izan dira. Nvivo-12 softwarea erabili da datuak aztertzeko, kategorizazio axiala eginez. Emaitzek emakumeek federazioetan aldaketa bat egitearen beharra agerian utzi eta balioztatzen dute. Ondorioen arabera, beharrezkoa da kirol erakundeetan aldaketak izatea eta emakumeen presentzia zuzendaritza karguetan handitzea.

Hitz gakoak: Emakumeak, kirola, kirol federazioak

Abstract

This study investigates the experiences of high-level female athletes in sports federations. The objective is to investigate their experiences and learn about their reality in sports institutions. It is a case study that analyzes the situations of asymmetry experienced by girls in sports federations. The information was carried out through 19 in-depth interviews and 3 discussion groups. The Nvivo software has served for the analysis of the information with an axial categorization, as well as served for structuring the results. The results confirm the need observed by women athletes for changes in sports federations. Among the conclusions are the need for changes in sports entities and the need to increase the number of women in management positions.

Keywords: women, sport, sports federations

1. Sarrera eta motibazioa

Lan hau doktorego tesiaren zati bat duzue. Goi mailako euskal kirolari talde baten identitatearen eraikuntza: kasu azterketa izenburupean, oraindik argia ikusteke dagoen doktorego tesiaren atal bat, hain zuzen ere. Tesiak emakume kirolarien hainbat dimentsio jorratzen ditu, kirolarien ikuspegitik. Gauzak horrela, emakume kirolari horiek kirol erakundeekiko eta, zehazkiago, kirol-federazioekiko dituzten bizipenetan jartzen da arreta.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

2.1. Kirol federatuaren antolaketa konplexua

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) kirolari buruzko eskumenak Eusko Jaurlaritzari dagozkio lehen graduan. Bigarrenik, Foru Aldundiak daude, eta, hirugarrenik, udalak. Nafarroako Foru

Erkidegoan, kirola Nafarroako Institutuaren Kirola eta Gazteriaren (INDJ) mende dago, Kultura Departamentuaren barruan (INDJ, 2018).

EAEn, federazioen egoera zertxobait desberdina da Estatuko gainerako lurraldeekin alderatuta; izan ere, lurralde bakoitzak kirol federazioak sortzeko eskumenak ditu; hala, lurralde federazioak eta euskal federazioak daude (Solar, 2016). Antolaketa egitura honek zaildu egiten du finantzaketa eta ez du batere laguntzen emakumeek kirol arloan parte hartzearen sustatzea era koordinatuan (Azurmendi, 2005). Nafarroako Erkidegoan 43 federazio daude (813/2017 Ebazpena).

2.2. Desberdintasunak orekatzeko saiakera arina

Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren jarduera ildoek bat egiten dute kirolean zeharkako begirada bat txertatzeko premian, eta horren helburua emakumeek kirol arloan parte hartzearen bultzatzea da (Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, 2012; INDJ, 2018).

2017an, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak ikerketa diagnostiko bat egin zuen emakumeek Nafarroako Kirol Jokoetan eta kirol federatutan bizi duten egoerari buruz. Emaitzek gizona eta emakumezkoen partaidetza arteko arraila baieztatu zuten (INDJ, 2017b). Arrakala horiek xamurtze aldera esan daiteke "Kirola eta Emakumea" plana abian jarri zela, kirol jarduera areagotzeko eta emakumeen abandonu goiztiarra geldiarazteko helburu behienarenekin (INDJ, 2017a).

Legediak aldaketak bultzatzen laguntzen du, eta horren erakusgarri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (4/2005 Legea) kirolari buruzko artikulua espezifikoa sartu izana. Artikulu horrek kirol arloko hainbat mailatan berdintasuna sustatzeko neurri zehatzak sartzea ekarri zuen (Azurmendi eta Murua, 2010). Legeak egitea beharrezkoa da, baina baliteke nahikoa ez izatea. Emakumeak kirol jardunean integratzea eta ez diskriminatzea hainbat lege eta dekretutan jasotzen da (Azurmendi eta Murua, 2005). Hala ere, ez da zehazten nola aurre egin diskriminazio jardueri, ezta ere zein neurri hartu hauen aurrean.

Ildo honetan, Eusko Jaurlaritzako kirol saila hainbat ekimen lantzen ari da, emakumeen kirola sustatzeko eta genero arrailak murrizteko konpromisoarekin. Hori lortzeko, beharrezkoa dakusgu erakunde publikoen arteko lan koordinatua (Emakunde, 2018).

Eusko Jaurlaritzak laguntza ekonomikoak ematen dizkie kirol-federazioei (2019/2274 Agindua) eta aldi berean genero berdintasuna sustatzeko laguntza espezifikoa ematen ditu (Kirol Zuzendaritza, 2018). Federazioak finantzaketa publikoa duten erakunde pribatuak dira, eta honek eztabaida sortzen du (García, Puig eta Sánchez, 2017). Era berean, deigarria da Kirol Kontseilu Gorenak (CSD, 2021) *Emakumea eta Kirola* Programako laguntzak eskusiboki federazioen bidez kudeatzea, emakume kirolarien elkarteak baztertuak geratzen direnean (López, 2017). Balirudike oraindik orain emakumeek kirol gestioan emaniko urratsak hutsaren urrenak direla.

Administrazioetatik desorekak kudeatzeko legeak egiten ari dira, beraz, onartzen da desberdintasunak daudela. Hainbat ikerketek dioten bezala, iraganean ainguratutako erakundeak dira federazioak (Leruite, Martos eta Zabala, 2015). Hainbatetan, erakunde horietako buruzagiek hizkera androzentrikoa erabiltzen dute, emakumeen lana ikusezin bihurtu eta gutxiesten dute (Alfaro, Bengoechea eta Vázquez, 2010) eta erabiltzen duten hiztegia horren eredu da, batez ere estereotipo sexistak eta maskulinitate hegemonikoa transmititzen dutelako (Guerrero, 2017). Kirol federazioak botere positioan daude, funtzionatzeko eta arauak egiteko orduan autonomia baitute (López, 2017). Ez da ordea emakumeen kasua, emakume kirolariek beraien karreretan aholkularitza juridiko eta lan aholkularitzarik ezak ez die mesederik egiten eta hala deitoratzen dute (Carrascosa, 2017); horrek ezin egoera vulnerableagoan uzten dituelarik eta ikasitako babesgabetasuna gogorarazten dielarik (Seligman, 1991).

2.3. Emakumeen parte-hartzea Hego Euskal Herriko kirol federatuan

Emakumeen lizentzien kopuruak gora egin duen arren, kirol modalitate jakin batzuetan biltzen dira lizentzia horiek. Horrek agerian uzten du kirol federatuan ere bereizketa horizontal argia mantentzen dela (Emakunde, 2012). Nafarroan ere antzeko egoera gertatzen da: sei kirol federaziotan soilik gaintzen dituzte emakumeen lizentziek gizonenak (Avento, 2017).

Genero asimetriarik ikusgarriena dagoen esparrua kirol elkarteetan dago (Avento, 2010; Emakunde, 2012; Muriel, 2016). Arreta jarri behar zaie faktore kualitatibo izaerei, desberdintasunak sortzen dituzten iragazki gisa jarduten baitute, hots, entrenatzeko ordutegi eta material okerrenak ematen dizkietenean (EKFB, 2010). Nafarroako Erkidegoan egoera bera errepikatzen da (Sainz de Baranda, 2018).

Emakumeek ordezkari txikia dute federazioetako lehendakaritzetan eta zuzendaritza batzordeetan (Leruite, Martos eta Zabala, 2015). Gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute berdintasuna laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatueta, eta horrexegatik bete beharko lituzkete berdintasun legeak (Ubani, 2018).

Egindako azterketak bat datoz benetako legeria aplikatzea eskatu behar denarekin, hots, praktikan jartzearekin (Carmona, 2016). Egoera hori aldatzeko proposamenak honako hauek dira: profesionalizazioa, hitzarmen kolektiboak, emakumezkoak erakundeetako zuzendaritza postuetan sartzea, federazioko langileei genero ikuspegiari buruzko prestakuntza ematea, emakume eta kirol programak planifikatzea/ebaluatzea, eta kirol arloan berdintasun legea zorrotz ezartzea (Leruite, Martos eta Zabala, 2015; López, 2017; Ubani, 2018).

2.4. Helburuak

Ikerketa honen helburua, goi-mailako emakume kirolarien federazioetan izandako bizipenak ikertzea da, bizi izan duten errealitatea ezagutu eta bizipen horiek kiroletik hurbildu edo urrundu dituzten jakiteko.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodoa

Aztertuko dena kasuazterketa bat da, non ikerketarako funtsezko tresnak elkarrizketak eta focus group-ak diren Datuak Euskal Herrian jaso dira goi mailako emakume kirolarien artean, 19 elkarrizketa sakon eta 3 focus groups aurrera eramanez, guztira 33 emakume kirolaririk parte hartu dute. Hainbat kirol praktikatzeko dute: futbola, arrauna, pilota, surfa, atletismoa, eskia, automobilismoa, karate, curlinga, sokatira, txirrindularitza eta triatloia. Datuak sailkatzeko kodeak erabili dira, lehenengo partean elkarrizketaren data zehaztu da: urtea, hilabetea eta eguna, ondoren E letra elkarrizketa adierazteko eta bukatzeko, zenbaki bat, kirolariaren anonimata bermatzeko, adibidez, (160319_E2).

Azterlan honetan jasotako informazioak izaera kualitatiboa du. Lincolnek eta Gubak (1985) adierazi zuten, ikerketa kualitatiboaren zati handi bat gizarte fenomenoaren ikuspuntuan oinarritzen da, giza dilemak eta gertakarien izaerak mota askotako egoeretan bihurtzen dituen ikuspegi oinarritzen da (Stake, 2013).

Gertakariak ulertzeko nahitaz sorleku duten arrazoiak eta jatorriak zeintzuk diren ezagutu nahi dira, halako arrazoi eta jatorriek bere berezko interesean hartzen baitute esanahia (Wood eta Smith, 2018). Kasu honetan gehien kezkatzen gaituena, emakume kirolariek mota desberdinetako diskriminazioak eta botere-asimetria esperientziak bizi izan dituztela da. Esan nahi da goi-mailako emakume kirolariek EAE eta Nafarroako kirol erakundeetan, federazioetan kasu, pairatu dituzten genero egoera baztertzailak. Behatu nahi da, zein izan den bizi izan zuten errealitatea eta zein faktore izan ziren garrantzitsuenak prozesu honetan.

Azterlana honek aukera ematen du Kirol erakundeen errealitatea eta bere funtzionamenduaz ikasteko (Stake, 2013) eta bizipen horiek beste autonomia-erkidego batzuetan errepikatzen ahal diren ikustea interesatzen zaigu (León eta Montero, 2015). Datuak aztertzeko Nvivo-11 Plus softwarea erabili da, kategorizazio axiala eginez. Lortu diren ahotsak anitzak izan dira eta kategoria hauetan elkartu daitezke: kirol federatuaren antolamendu konplexutasua, zailtasunak kirolarientzat, justiziara jo, eta aurrerapenak, aliantzak eta emakumeen presentzia eskatzen dute botere postuetan.

3.2. Emaitzak

Elkarrizketatutako emakume kirolariek kirol federazioetan bizi izandako esperientziei lotutako hainbat bitxikeri kontatzen dituzte.

3.2.1. Kirol federatuaren antolamendu konplexutasuna

Federazioek bere arau propioak dituzte, baina federazio desberdinen sareak ez du laguntzen arauak ulertzen, batzuetan kontraesankorrak baitira. Emakume kirolariek erakunde horien erabakiak onartzen dituzte, baina batzuetan euren interesen kontra joaten dira eta beraien karrera oztopatzen da. Ezaguna denez, goi mailako kirolean eskakizun maila oso altua da, baina batzuetan irizpideen argitasuna ez dago maila berean.

“Ez zaude Euskadiko federazioaren menpe bakarrik, munduko txapelketa jokatzeko ezin duzu Euskal Herriko selekzioarekin jokatu” (160130_E3).

Maila hauetan lehiatzeko baldintza gogorrek eskatzen dituzte nazioarteko erakundeek, eta hautaketa irizpideak ez daude beti argi.

“Espainiako Federazioak erabaki du Espainiako txapelketa irabazten duena joango dela Olinpiadetara. Datorren urtekoa irabazi beharko litzateke Olinpiadetara joateko” (160405_E9).

Arautegiaren interpretazio desberdinak daude.

“Ez digute barketarekin korrika egiten uzten hemen, Espainian eta European korritu dugu, eta ez digute Euskal Herrian korritzen uzten. Baina pertsona batzuk 1980ko barketarekin korrika egiten ari dira, FIAk homologatu gabe, eta parte hartzen uzten diote” (160925_E18).

3.2.2. Zailtasunak kirolarientzat

Aipatu dituzten zailtasunak mota ezberdinetakoak dira: batzuetan entrenatzeko arazoak zituzten, lekuak eta orduak okerrenak zirelako eta beste kantxa batzuk bilatu beharrean aurkitzen zirelako; beste batzuetan sexismoari aurre egin behar zioten; noiz behinka lehiatzeko eskubidearen alde borrokatu behar zuten eta azkenik, bakardadea aipatzen da. Hitz batean, oztopo ugari izan dituzte kirol instalazioetara sartzeko.

“Entrenamendu orduak jartzen zizkigun hemen Iruñean arratsaldeko hiruretan. Nor etortzen da arratsaldeko hiruretan? Lanetik ordu bi edo ordu bi eta erdietan irteten bazara. Orduan 8etan joan behar izaten genuen Arnedora (...) Zuzendari tekniko horri entrenamendu orduak eskatzen genizkion, eta ez zizkigun ematen. Espainia ordezkatzera joan behar genuen Europako Txapelketa horretan”(160319_E2).

Sexismoa federazio zuzendari batzuen aldetik.

“Federazioan, neskak oztopo bat ginen haienez (…). Batzuek esaten zuten nesketan inbertitu behar genuela. Eta beste batzuek esaten zuten, gure aurrekontuaren kontura?” (160319_E6).

Kirolaren ikuskera androzentrikoa begi bistan geratzen da, zuzendari askok ahaztu egiten zuten kirola egiteko eta lehiatzeko emakumezkoen eskubidea.

“Gastu bat ginen, aurrekontutik nesken aurrekontua atera behar zutela esaten zuten. Orain barre egiten dugu, orain alderantziz egiten dutelako, nesken partidatik mutilentzat ateratzen dutelako” (160319_E6).

Bakardadea lagungarri izan daiteke norgehiagoka baten aurrean kontzentrazio maila lortzeko, baina prozesuan pertsonal teknikoaren laguntza eta babesa ezinbestekoa da. Hala ere, emakume kirolari batzuek bakardadearen sentimenduaren presentzia azpimarratzen dute.

“Izugarri disfrutatu dut, baina baita sufritu ere. Oso bakarrik gelditu naiz, Munduko txapelketak eta Europakoak bakarrik prestatu ditut, ez neukan inor” (160406_E15).

3.2.3. Justiziara jo

Emakumezko batzuen esanetan, kirol ibilbidean oztopo ugari izan dituztenez, batzuetan kirola uztea, justiziara jotzea, edo alde egitea beste erremediorik ez dute izan. Ez da beraien gustukoa horrelako pausua eman behar izatea, baina beraien duintasuna defendatu nahian, hainbat kasutan

justiziara jotzea pentsatu dute. Epaimahaien sententziak ez dira nahi bezain azkar heltzen, eta zenbaitetan sententzia aldekoa izan arren, galtzen da. Prozesu horiek ez dute beti justizia bermatzen.

“Hondarribian egin zen Euskal txapelketako rallysprinta irabazi nuen (...) adierazpen batzuk egin nituen (...) eta haiek azken lasterketan lizentzia kendu zidaten, azken lasterketan parte ez hartzeko eta txapelketa irabazteko aukerarik ez izateko. Epaiketara joan ginen, eta epaileak arrazoia eman zidan, baina lasterketa jokatu zegoan jada”. (160925_E18)

Alde egitearen erabakiaren atzean hainbat zailtasun izkutatzen dira.

“Nik kontatuko banu bizi behar izan dudana... Nik ez dut inoiz kontatu eta ez dut kontatuko. Bakarrik esaten dut Italiara alde egiteko aukera izan nuenean, ez nuen pentsatu, 20 urterekin joan nintzen eta esan nuen: “ez dut bizi nahi, hemen bizitzen ari naizena” Horregatik joan nintzen.” (160331_E13)

3.2.4. Aurrerapenak, aliantzak eta emakumeen presentzia eskatzen dute botere postuetan

Makina bat kontu deskalifikatzaile entzun dituzte baina ez dituzte gogogabetu, agian beste emakume batzuk bai. Erakunde horien barruan aldaketak eskatzen dituzte: hierarkia horiekin apurtzea, lankideak topatzea, emakume gehiago ikustea arlo guztietan, botere postuetan ere bai.

“Azkenean, aldaketak egon behar dira. Federazio bat ondo zuzentzen dutenak aldaketei irekiak egon behar dira. Baina ez daude, erakunde hierarkikoak eta matxistak dira” (160319_E2).

Beharrezkoa da aliatuak izatea ekitatearen alde lantzeko erakundeen barruan eta kanpoan.

“Proiektu hori zuzendari teknikoarengandik sortu zen, sentsibilitate handiko gizona. Niretzat lortu behar dena, gizonetakoak gu baino gehiago ez direla konturatzea da” (160304_E4).

Baina beharrezkoa da, emakumezkoak erakundeen zuzendaritza postu ezberdinetan izatea.

“Hor ez duzu emakumezkoak ikusten, badaude, baina oso gutxi. Ez dakit zergatik, badirudi traba egiten dietela. Baina tenisarekin gertatu zen, ezta?” (160319_E6).

4. Ondorioak

Euskal Kirol Federatuaren antolamenduari buruz hainbat ondorio ikusten dira.

Lehenik, kirol federatuaren antolamendu konplexutasunak ez du emakumeen parte hartzea errazten (Azurmendi, 2005). Kirolari emakumeek arauak betetzen dituzte, nahiz eta kasu batzuetan kalte egiten dieten.

Bigarrenik, genero ikuspegiko legeria beharrezkoa izan arren, ez da nahikoa. Benetako neurriak hartu behar dira kirol federazioetan berdintasuna lortzeko, berdintasun legeak ezartzeko (Ubani, 2018), eta emakumeen parte hartzea bultzatzeko (Azurmendi eta Murua, 2010). Kirolean ematen den bereizketa horizontala hautsi behar da (Emakunde, 2012; Avento, 2017), generoen arteko arraila ezabatu (Avento, 2010; Emakunde 2012; Muriel 2016) eta emakumeek aukera gehiago izan behar dute zuzendaritza postuetan sartzeko (Leruite, Martos eta Zabala, 2015).

Azkenik, emakume kirolariak gero eta gehiago antolatzen dira beraien eskubide eta interesen defentsak aldarrikatzen (López, 2017). Justiziara jotzen dute erabaki diskriminatzaileak baliogabetzeko eta beraien kirol ibilbideko bidegabekeriak agerian uzteko.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Une honetatik aurrera, ikerketaren emaitzak artikulu zientifikoetan, txostenetan edo elkarrizketetan zabaldu nahi dira. Interesgarria litzateke emakume kirolarien esperientzietan sakontzen jarraitzea datu berriak bilduz, Hego Euskal Herriko kirol erakundeen errealitatea hobeto ezagutzeko.

6. Erreferentziak

- Alfaro, E., Bengoechea, M. eta Vázquez, B. (2010). Hablamos de deporte. En femenino y en masculino. Madril: Catálogo de publicaciones de la Administración General del Estado.
- Avento Consultoría (2010). Guía para incorporar la perspectiva de género en las federaciones deportivas vascas. Vitoria-Gasteiz: Departamento Cultura- Gobierno Vasco.
- Avento Consultoría (2017). Estudio sobre la situación de las mujeres en los Juegos Deportivos de Navarra y en el deporte federado de Navarra. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- Azurmendi, A. (2005). La práctica deportiva de las mujeres como ámbito de intervención de las Instituciones Públicas Vascas. *Inguruak, soziologia eta zientzia politikoaren aldizkaria*, 41, 159-174.
- Azurmendi, A. eta Murua, J. (2010). Estudio desde la perspectiva de género sobre la situación de las deportistas de alto nivel de la CAPV. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Carmona, A. (2016). Estudio sobre la aplicación de la ley integral por las audiencias provinciales. Madril. Consejo General del Poder Judicial.
- Carrascosa, A. (2017). La apuesta por la deportista. In M. J. López. (koord.) *Mujer, discriminación y deporte* (pp. 155-157). Madril. Reus.
- CSD (2021). Resolución de la Presidencia del Consejo Superior de Deportes, por la que se convocan ayudas a las Federaciones Deportivas Españolas para el Programa Mujer y Deporte en el año 2021.
- EKFB (2010). Guía para incorporar la perspectiva de género en las Federaciones Deportivas vascas. Unión de Federaciones Deportivas Vascas. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Emakunde (2012). La evaluación de impacto en función del género en deportes. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- Emakunde (2018). VII Plan para la Igualdad de Hombres y Mujeres en la CAE (2018-2021). Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (2012). Memoria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco 2009-2010. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- García, M., Puig, N. eta Sánchez, R. (2017). La organización social del deporte. In M. García, N. Puig, F. Lagardera, R. Llopis, eta A. Vilalonga (koord.) *Sociología del deporte* (pp. 169-195). Madril: Alianza Editorial.
- Guerrero, S. (2017). La prensa deportiva española: sexismo lingüístico y discursivo. UCOPress Editorial Kordobako Unibertsitatea: Kordoba.
- INDJ (2017a). Plan de Acción Deporte y Mujer. Pamplona-Iruña: Instituto Navarro de Deporte y Mujer. Nafarroako Gobernua.
- INDJ (2017b) Estudio sobre la situación de las mujeres en los Juegos Deportivos de Navarra y el deporte federado de Navarra. Pamplona-Iruña: Instituto Navarro de Deporte y Mujer (). Nafarroako Gobernua. Parte I. Diagnóstico.
- INDJ (2018). Deporte y Mujeres. Pamplona-Iruña: Instituto Navarro de Deporte y Mujer, Nafarroako Gobernua.

- León, O. G. eta Montero, I. (2015). Métodos de investigación en Psicología y Educación. Las tradiciones cuantitativa y cualitativa (4. edizioa). Madril: McGrawHill Education.
- Leruite, M.T., Martos, P eta Zabala, M. (2015). Análisis del deporte femenino español de competición desde la perspectiva de protagonistas clave. Retos, 28, 3-8.
- Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, Madrid: BOE núm. 274, 2011eko azaroaren 14.
- Lincoln, Y. S., eta Guba, E. G. (1985). Naturalistic Inquiry. Newbury Park, CA: Sage Publications.
- López, M. J. (2017). Mujer, discriminación y deporte. Madril: Reus.
- Martínez-Abajo, J. (2019). La construcción de la identidad de un grupo de deportistas vascas de alto nivel: un estudio de caso. (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea. ADDI. (<http://hdl.handle.net/10810/35187>)
- Muriel, S. (2016). Trabajando la igualdad en el ámbito federativo vasco: guiando la reflexión para pasar a la acción. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. Resolución 813/2017, de 5 de diciembre, para la Concesión de subvenciones a las federaciones deportivas de Navarra.
- Sainz de Baranda, C. (2018). Presencia y tratamiento de las deportistas en los medios de comunicación de Navarra. Iruña: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.
- Seligman, E. M. (1991). Indefensión. Debate: Madril.
- Solar, L. (2016). La situación del deporte en Euskadi. Una visión general. Vitoria-Gasteiz: Asociación Vasca de Gestores del Deporte. KAIT.
- Stake, R. E. (2013). Estudios de casos cualitativos. In N. K. Denzin, eta Y. S. Lincoln (koord.). Manual de Investigación Cualitativa, vol. III (154-197 or.). Bartzelona: Gedisa.
- Ubani, C. (2018). El espejismo de la igualdad en el deporte. Asociación para Mujeres en el Deporte Profesional (AMDP). Mujeres y Deporte. Noticias. Recuperado de: <https://www.mujareseneldeporte.com/2018/11/mujer-y-deporte-el-espejismo-de-la-igualdad-por-cristina-ubani/>
- Woods, P., eta Smith, J. (2018). Investigar en educación. Conceptos básicos y metodología para desarrollar proyectos de investigación. Madril: Narcea.

7. Oharrak

Lan hau Judit Martínez Abajoren tesian oinarriturik dago.